



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GASTEIZKO UDALEAN ALDI BATERAKO ZERBITZUAK EGITEKO KONTRATAZIO-ZERRENDAK OSATZEKO DEIALDIAREN OINARRI OROKORRAK

LEHENA.- DEIALDIAREN XEDEA.

ERANSKINEAN adierazten diren kontratazio-zerrendak sortzea/handitzea du helburu deialdiak.

BIGARRENA.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

2.1. Hautatze-prozesuan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

A) Espainiar hiritartasuna izatea, edo, lanpostuen zer-nolakoez aukera ematen badute, Europar Batasuneko kide den estaturen batekoa nahiz Europar Batasunarekin sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen arabera langileen joan-etorri librea aplikagarri zaion herrialderen batekoa, joan-etorri libre hori zehaztua dagoen moduan. Orobat parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatuetakoren bateko hiritartasuna dutenen ezkontideek, izatez bananduta ez badaude, baita hiritartasuna dutenen ondorengoek nahiz ezkontideenek ere, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, ondorengo horiek 21 urtetik beherakoak badira nahiz adin horretatik gorakoak izanda ere gurasoen kontura bizi badira. Hiritartasuna dutenen ezkontide nahiz ondorengoek gaztelania nahikoa badakitela egiaztatu beharko dute.

B) 16 urte beteta edukitzea.

C) Zereginak burutzeko gaitasun funtzionala edukitzea, eta lanpostuari dagozkion zereginak egitea galaraziko lukeen osasun-arazorik ez edukitzea.

D) Dosier zigortzaileraren bat dela medio inongo administrazio publikoren zerbitzutik kendua ez izatea, eta funtzio publikoak betetzeko gaitasungabetua ez egotea.

E) Nahi den zerrendarako eskatzen den titulazio akademiko ofizialaren eta, hala adierazten delarik, espezialitatearen jabe izatea (ikus berriazko oinarrien eranskina).

F) Azterketa egiteko tasa ordainduta edukitzea, edo, tasa ez ordaintzeko egoeraren batean egonez gero, horren egiaztatzea.

G) Dena delako zerrendarako berriazko oinarrien eranskinean berriaz ezartzen diren gainerakoak.

2.2. 2.1 oinarrian adierazitako baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira, eta kontratua sinatu edo izendapena egin arte eutsi beharko zaie, C) atalean adierazitakoa izan ezik; hori, izan ere, Zerbitzu Medikoak egiaztatu beharko du, kontratazioa edo izendapena egin aurretik. Ezarritako epeetatik kanpo ez da agiri osagarri onartuko.

2.3 IT txartelak. Lanposturako baldintza gisa ezartzen badira, zerrenda osatzeko ebazpena ematen denetik hiru hilabete pasa arte ez dira kontuan hartuko hautaketetarako. Interesdunak berak eskatu beharko du horiek eguneratzeko, horretarako ezarritako prozedurari jarraituz.

HIRUGARRENA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA.

3.1. Deialdian parte hartzeko bideak:

- Webgunean: www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak.
- San Antonio kaleko 10.eko herritarrei laguntzeko bulegoan.
- Gizarte-etxeetako herritarrei laguntzeko bulegoetan: Aldabe, Arriaga, Pilar, Hegoalde, Ibaiondo, Iparralde, Judimendi, Lakua, Salburua eta Zabalzana, eta Ariznabarreko kiroldetgia. Halaber, udalaren bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25).

3.2. Azterketa-eskubideen tasak. Aurkezten diren deialdi bakoitzeko ordaindu beharko dute kuota lehiakideek, lanpostua zein titulazio taldetakoa den aintzat harturik, indarrean dauden ordenantza fiskaletan jasota dagoenaren arabera.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, ez da inolaz ere onartuko tasa itzultzeko eskabiderik.

3.3. Udalaren webguneko ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu beharko da tasa —izenduna eta banakatua, lehiatu nahi den lanpostu bakoitzeko—, edo eskabidea aurkeztean sortzen den ordaintzeko agindua baliatuz.

3.4. Betebeharrak egiaztatzeko agiriak hautatze-prozesuan aurkeztu beharko dira. Merezimenduei dagozkien agiriak aurkezteko berariazko oinarrietan ezarritakoari jarraituko zaio. Eskabidearekin batera ez da agiririk aurkeztu beharko.

3.5. Zuzenbidean onartuta dagoen edozein frogabide baliatu ahal izango da baldintzak eta merezimenduak egiaztatzeko; bereziki, honako hauek:

- a) Titulazio akademiko ofizialak: titulua, edo dagozkion tasak ordaindu ondoren eskuratutako ordainagiria.
- b) Hizkuntza-eskakizuna: HAE Eren, Hizkuntza Eskola Ofizialaren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren nahiz eskumena duen beste administrazio publikoren baten ziurtagiria.
- c) Ezarriko den prozedurari jarraiki eskatuko da IT Txartelak egiaztatzea (gako publikoa).

3.6. Probarik jartzen bada, eta azterketa egin ahal izateko —legez onartuta dauden kasuetan— egokitzapenen bat behar izanez gero, eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen jakinarazi beharko da, arrazoiak eman eta beharrak zehazten direlarik.

BOSGARRENA.- EPAIMAHAIA.

4.1. Eranskinean ageri da zehaztuta zein izango den deialdiko epaimahaia.

4.2. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik. Epaimahaiaren erabakiak bertan direnen boto-gehiengoz hartuko dira, eta berdinketarik gertatuz gero, berriz, epaimahaiburuak erabakiko du.

4.3. Titularrekin batera ordezeko epaimahaikideak ere izendatuko dira.

4.4. Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun mahaiburua eta idazkaria edo ordezekoak bertan ez badira, ezta kideen erdiak —titularrak nahiz ordezekoak— bertan ez badira ere.

4.5. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako egoeretakoren batean suertatuz gero, epaimahaikoek uko egin beharko diote parte hartzeari, deialdia egin duen agintariari hala jakinaraziz, eta orobat baliatu ahal izango dute aurkezten direnek haiek errefusatzeko eskubideaz.

4.6. Oinarri hauetan jaso gabekoei dagokienez, epaimahaiaren esku geratuko da argitu beharrekoak argitzea eta deialdia behar bezala bideratzeko hartu beharreko erabakiak hartzea.

4.7. Behar izanez gero, adituak bildu ahal izango ditu epaimahaiak bere baitara, egin beharreko zat jotzen dituen probei dagozkienetan aholkulari lanak egin ditzaten; horiek, dena dela, beren espezialitate teknikoan baino ez dute jardungo.

4.8. Jakinarazpen eta erreklamazioetarako, haxe izango da epaimahaiaren helbidea: Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea; 01008 Vitoria-Gasteiz (Herritarrei Laguntzeko Bulego Nagusia).

4.9. Eratzen den unean indarrean dagoen erreferentziazko udal-dokumentua hartuko du epaimahaiak barne araudizat.

BOSGARRENA.- PROBETARAKO ONARTZEA.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Giza Baliabideen Sailak lehiakideen behin-behineko zerrenda eta lehen ariketarako deialdia argitaratuko ditu iragarki-taula digitalean eta webgunean.

5.2. Bost egun balioduneko epea izango da, zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik, akatsak zuzendu ahal izateko.

SEIGARRENA.- ARGITALPENAK.

6.1. Ariketetako bakoitza egiten delarik —izanez gero— nahiz merezimenduak baloratzen, behin behineko emaitzak argitaratuko ditu epaimahaiak, eta hiru egun balioduneko erreklamazio epea finkatuko, argitaratze-egunaren biharamunetik. Test moduko probetan, epea bi egunekoa izango da behin-behineko txantiloia kontrako erreklamazioetarako, eta bi egunekoa behin-behineko irakurketaren kontrakoetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betikotzat joko dira behin behineko emaitzak, besterik gabe.

6.2. Horretarako jarritako epeetan aurkezten diren berrikusteko eskabide eta erreklamazio guztiak erantzundakotzat joko dira epaimahaiak behin betiko emaitzak onesten ditueneko erabakiaren berri ematen delarik.

6.3. Gasteizko Udalaren iragarki-taula izango da erabakiak, deiak, ariketen egun-orduak nahiz bestelakoak argitara emateko lekua, urriaren 1eko 39/2025 Legearen 45.1 b) artikuluan xedatutakoa betetze aldera, eta banan-banako jakinarazpenen ondorio berberak izango dituzte argitalpen horiek. Nolanahi ere, Udalaren webgunearen bitartez eta herritarren argibideetarako 010 telefonoaren bitartez ere emango du informazioa Giza Baliabideen Sailak.

6.4. Hautatze-prozesuan parte hartzeak eskabidean adierazitako datu pertsonalen tratamendua onartzen dela esan nahiko du; hau da, prozesuko emaitza partzialak nahiz behin betikoak buletinetan, iragarki-tauletan, webgunean eta bestetan argitaratzea onartzen dutela lehiakideek, eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota dauden datuak kontsultatzeko baimena ematen dietela udal-zerbitzuei.

6.5. Publikotasun-printzipioaren menpe daude hautatze-prozesuak; beraz, lehiakideak bere datuak baliatzea ontzat eman ezean, ez da haren eskabidea onartuko. Norberaren datuak ikusi, zuzendu, ezeztatu nahiz kontra agertzeko eskubideak baliatzeko, deialdia egin duen organoarengana jo beharko da.

6.6. Hautaketa-prozesua bukatu ondoren, lehiakideek lortutako kalifikazioen zerrenda argitaratuko du epaimahaiak, atal bakoitzean lortutako puntuak eta azken puntuazioa adierazten direlarik.

6.7. Deialdi honen xede diren aldi baterako kontratazioetarako zerrendak eratzeko proposamena jasotzen duen akta igorriko dio epaimahaiak organo eskudunari.

ZAZPIGARRENA.- ZERRENDEN FUNTZIONAMENDUA.

7.1. Epaimahaiak kontratazio-zerrendak osatzeko proposatzen dituen lehiakideek —emaitzen zerrenden behin betiko argitalpenean adierazten den epean— eskatzen zaien jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko dute Giza Baliabideen Sailean, erkatzeko. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira (pisu handiko arrazoiak tarteko direnean salbu), edo horiek aztertzen direlarik oinarrietan eskatutako baldintzetakoren bat betetzen ez dela ikusten bada, lehiakideek ezingo dute ez izendapenik jaso, ez kontraturik egin, eta ordura arteko jardura oro indargabetu egingo dira, faltsukeriaren aurrean erantzun beharra gora-behera. Halakoetan, behin betiko baja emango zaio zerrendan dena delakoari.

7.2. Zerrendan sartzeko hautatuei —hartarako ezarritako parametroak oinarritzat harturik— beren parte-hartzeko baldintzak galdetzeko prozedurak ezarriko ditu Giza Baliabideen Sailak.

7.3.- Aldi Baterako Kontratazioetarako Zerrendak Kudeatzeko Araudiak eta lanpostuak kontratazio-zerrenden bitartez aldi baterako betetzeko finkatuta dauden prozedurek —Udalaren webgunean daude eskuragarri— arautuko dituzte zerrenden funtzionamendua, antolakuntza eta kontratazioak egiteko hautaketa.

7.4. Antzeko lanpostuak edo goragoko kategoriakoak betetzeko baliatzen bada hautaketa-prozesua, berriazko proba osagarriak egiteko deitu ahal izango die Hautaketa Zerbitzuak zerrendako kide guztiei edo parte bati.

ZORTZIGARRENA.- AZKEN ARAUA.

Deialdi honen kontra nahiz berorren nahiz epaimahaiaren jardueraren ondorio den administrazio-egintza ororen kontra egiterik izango dute interesdunek, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean nahiz administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean adierazitako kasuetan eta moduan.

Oinarri hauen kontra berraztertze errekurtso arrunta aurkeztu ahal izango da, Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, hilabeteko epean, argitaratzen diren egunaren biharamunetik, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratzen direnetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 1ean, Iñaki Gurtubai Artetxe, Giza-Baliabideen Saileko Zinegotzia.